

ONARTUTAKOENTZAKO ARGIBIDEA
2021eko UDAKO HIRI KANPALDIA BURLATA



Kaixo lagunak, ziur gure zain zeundela. Kanpaldia gero eta hurbilago dago eta, jakina, zerbait jakin behar duzu joan baino lehen.

Zuk aukeratu duzun kanpaldia **Burlatan** egingen da 6 txanda ezberdinetan, uztailaren 27tik irailaren 4ra. Era askotako gauzak egingen dituzu eta, guztietan ere, primeran pasatuko duzu: sormen jarduerak, adierazpen jarduerak, jolasak, tailerrak. Lagun berriak ezagutuko dituzu, gainera, eta, haiekin batera, bizipen zoragarriak biziko dituzu.

Non: Burlatako Kultur Etxean: Jarduera Burlatako Kultur Etxean egingen da.

Sarrera eta irteera orduak

Sarrera ordua 8:00 eta 9:00 artean izanen da, eta irteera, berriz, 14:00 eta 14:30 artean. Kanpaldia behar bezala antolatzeko, iritsi puntu-puntu mesedez. Haurrak biltzeko orduan, monitoreei jakinarazi beharko zaie, eta inork ere ezin izanen du haurrik eraman, aurrez deus esan gabe. **Irteera-orria sinatu beharko da.**

Bide segurua

Burlatako Udaletik haurren autonomia garapenaren aldeko apustua egiten dugu, familiei animatuz, posiblea den neurrian, etxetik-kultur etxerako eta kultur etxetik-etxerako bidea bakarrik egiten utz diezaieten. Hau posiblea izateko beharrezkoa da gurasoek baimena sinatzea etxerako bidea EZ baitago hiri-kanpaldien barruan.

Sendagaiak

Inolako sendagairik hartzen baduzue edo inolako osasun-tratamendupean bazaudete, eraman idatzita, eta, behin Kultur Etxera iritsitakoan, eman monitoreari, hartaz arduratuko baita.

Aseguru Medikoa:

Fitxa hau aurkezterakoan, **Gizarte Segurantzaren** kartilaren fotokopia bat ere aurkeztu beharko duzu. Zure familiak eta zuk beste aseguru bat baldin baduzue, behar diren agiriak aurkeztu beharko dituzue, behar izatekotan laguntza egokia jaso dezazuen.

Arropa

Haurrek arropa erosoa ekarri beharko dute, bai eta kamiseta zahar bat ere, tailer jakin batzuk egiteko, zikintzen ahal baita. Kamiseta haurraren izena jarriko da.

Hamaiketakoa

Haurrak hamaiketakoa ekarri beharko dute (ogitarteko bat?), aproposa baderitzozue ur botila ere.

Dirua: Gure gomendioa da dirurik ez eramatea, ez baitago zertan gastatu.

Mugikorrak

Kanpaldia gozamenerako eta beste hurrekin, begiraleekin eta inguruarekin harremantzeko gunea da, beraz, EZin izango da mugikorrik edo antzeko aparatuekin eraman, ez eta erabili ere. Mugikorrek ekintzetan erabiliak izango balira, hauek bildu egingo genituzke eta egunaren bukaeran eman. Haur edo gaztetxoren batek mugikorra behin eta berriz erabiltzen badu, beste ekintza batzuk baloratuko dira.

Taldea sortzea:

Taldeak sortzeko, gutxienezko parte-hartzaile kopuru bat beharko da

KOVID-19

Dakizueenez, aurtengoa urte berezia izaten ari da, COVID-19a dela eta. Beraz, horri buruz ematen dizuegun informazio guztia irakurtzeko eta erakundeari laguntzeko eskatzen dizuegu. Guztion ardura da!

Lehenengo egunean aurkeztu behar den dokumentazioa

Udalekuko lehen egunean, udalaren webgune honetan bertan aurki dezakezun dokumentazio hau eman beharko zaio begirale arduradunari:

1. Osasun-txartela
2. Parte hartzeko eta irudiak erabiltzeko baimen-fitxa
3. Erregistro-fitxa
4. COVID-19ri buruzko baimen informatua (horretarako, irakurri beharreko 3 dokumentu aurkeztu dira)

Oraingoz fitxa gehienak gaztelaniaz baino ez daude, itzulpena lantzen ari gara. Barkatu eragozpenak